



BARREN  
TOKIKOM

# Ezaugarrien aurretik, pertsona



*Domekan Kalegoen plazan bilduko gara, euskara herritar guztion kontua delako.*

**EUSKARALDIA** proiektuaren **AURKEZPEN PUBLIKOA**

Abenduak 3, igandea - Kalegoen plaza - 13:00



**DANOBATGROUP**





MIKEL ARTOLA

Ekonomilaria



## Bezeroa nagusi?

**G**akoa bezeroari entzutea dela aspaldi xamarretik barneratuta geneukan. Zenbait sektoretan, produktu ona eta prezio lehiakorra izatea biziraupenarentzat nahikoa ez dela ere ikusi dugu. Produktua beharrean, zerbitzua eskaintzera zuzentzen ari diren enpresa industrialen jarduna ohikoagoa bihurtzen ari da, hainbat lider hala ari baitira.

Dena dakigu bezeroari buruz. Kon-

tsumo produktuei jarraika, beste zenbait sektoretan salmenta bera baino, eroslearen datuak eskuratzea bilakatu da funtsa. "Datuen sektorea" petroleoarena baino handiagoa da dagoeneko digitalizazioaren iraultzan. Erosketa ohiturak eza gututa eta erosketa beharrak aurreikusita (eta sortuta), eskaintza garaitezina osatzeko atarian geundeke. Saltzen digutenek garamatzate gorenera. Perfekzioa ote da dena eskuragarri izatea, nahi duguna pentsatu gabe jasotzea?

Laster produktu gehienak oso pertsona gutxirekin egiteko gai izango garen garaia ere saihestezina dirudi. Adimen artifiziala ate joka daukagu, logika menperaezin berarekin: hobekuntza bizi-

lege duten makinek mugarik ez dute, ondo egiten ez dituztenak bere kabuz zuzentzeko gai badira. Super inteligentzia!

Gizatasunak aterako al gaitu ataka makur horretatik? Motibazio merkantilista hutsetatik ihes egiteak, ase-ezinak uzteak, bezeroaren erresuma zalantzan jartzeak. Gelditzeak, pentsatzeak. Tarte ekonomikoak murrizteak eta gizarte kohesionatuagoak garatzeak. Enpleguaren eta heziketaren paradigma berriak ikuspegi berrietatik lantzeak, pertsonak baliagarriak eta baliotsuak sentiaraziz. Gizabanako gisa lekua aurkitzeak eta besteei laguntzen aurkitzeak, parametro ekonomiko soiletatik haratago.

*"Perfekzioa ote da dena eskuragarri izatea, nahi duguna pentsatu gabe jasotzea?"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzkadi Legeburuaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirre-azaldegi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

#### ► ESKERRAK MIKEL ETXANIZI

Mikel, eskerrak eman nahi dizkizugu, zarata ateratzen genuen arren, uneoro gugan izan duzun konfiantzagatik. Zuri esker lortu genuen batukadako konpasak entzuteko atseginagoak eta errazagoak izatea. Mila esker.

Haizea Emakume Taldea

#### ► ZORIONAK

Merkatu Plazako dendariak zoriondu nahiko nituzke, ostiralean egin zuten ekinzagatik. Bakailao pintxo zoragarriak banatu zituzten, giro ederrean eta alaitasunez. Eskerrik asko horrelako ekinizak egiteagatik.

M.A.A.

#### ► OHARRA

Abenduko jai-zubia dela-eta, abenduaren 8an ez da BARRENik egongo, eta beraz, hurrengo alea hilaren 15ean jasoko duzue.

BARREN



**DANOBATGROUP**  
Euskara aflean, erabifi lanean

**HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETANI!**

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi bi gauko egonaldia bi lagunentzat



https://www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html  
\*Parte hartzeko ahal egaitasunak 2021ko abenduak 11



DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SCRALLICE KOOP. E.




# ZAINZAILAK ZAINZEN

hitzaldia

'Min emozionalean barrena. Kulpa eta frustrazioa'

Hizlaria: Amaia Saenz Aurtenetxe, BIDEAN elkarteko psikoterapeuta

**Abenduak 13, asteazkena**  
**Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan**



Nuala



ELGOIBARKO  
UDALA



elgoibar  
BID. AROKATZA

# ▶ TAUPADA ANTZERKI TALDEA: 40 URTE TAUPAKA

'Bihotz txatalak' eta 'Ikasgaia' obrak estreinatuko dituzte abenduan Herriko Antzokian

**Taupada antzerki taldea 1977ko udazkenean sortu zen, kultura eta euskara sustatzeko helburuarekin. 40 urte pasatu dira ordutik. 40 urte daramatzate Taupada taldeko kideek oholtzan, euskaraz antzezten. 40 urtean ari da taupaka Taupada. Lagun talde batek sortu zuen taldea, baina azken urteetan Edurne Lasak eta Jose Mari Larrañagak osatzen dute taldearen bihotza eta arima. Ibilbide luzea bezain oparoa egin dute, eta bidean denetariko uneak bizi izan dituzten arren, aurrera jarraitzeko ilusioz daude. Bihotzean daramate antzerkia, eta 40 urtean ari dira antzerkiaren bihotzean lanean.**

- AINHOA ANDONEGI -



**B**errogeigarren urteurreneko ekitaldien artean, bi obra estreinatuko dituzte abenduan, Elgoibarko Herriko Antzokian: *Bihotz txatalak* eta *Ikasgaia*. Baina estreinaldi horiek hasiera baino ez dira izango. Udazkenean sortu zuten taldea duela lau hamarkada, eta urteurreneko ospakizunak udazkenetik udazkenera bitartean egingo dituzte.

## 'Bihotz txatalak' gaur, Herriko Antzokian

*Bihotz txatalak* obra estreinatuko du Taupadak gaur, Herriko Antzokian. Taupadan aritzen eta aritu izan direnen bihotzeko txatalekin egindako antzezlan da. Zortzi esketxen bitartez gizartean sortzen diren gatazka, bidegabekeria, kezka eta ustekabeko bizipenak islatu dituzte, konplizitatearen bitartez, ikusleei irudimena, enpatia eta ilusioa askatzeko giltza eskainiz. Edurne Lasak zuzendu du obra, eta Josemari Larrañagak egin ditu teknikari lanak. Mikel Olaizolak aurkeztuko du saioa, eta Aitor Novak jarriko du musika.

Ekitaldian, bestalde, Manu Sanchezek prestatutako bideo bat ere proiektatuko dute. Antzezleak ondorengoak izango dira: Nagore Cid, Jon Olivares, Sara Iriando, Gorka Fernandez, Ibai Leon, Aitor Guisasola, Encarni Migales, Ibon Herrero, Daniele Zelaia, Jon Etxeberria eta Ainhoa Zapata.

22:00etan hasiko da obra, eta ordubeteko iraupena izango du. Sarrerak 10 euro balio ditu. Antzezlaren ostean, Encarni Migalesek prestatutako koktel berezia dastatzeko aukera eskainiko dute.

Obra berezia izango da gaurkoa, eta Edurne Lasaren anaia Josemariri eskainiko diote, Taupadaren sorreratik babeska eskaini ziolako taldeari eta beti laguntzeko prest agertu zelako.

## 'Ikasgaia' antzezlanaren 15ean

Abenduaren 15ean, bestalde, *Ikasgaia* antzezlanaren estreinatuko dute. Eugene Ionesko da obraren egilea, eta Angel Ugarteburuk euskaratu du. Kasu honetan, Ioneskoren ikasgaia maisuaren eta ikaslearen arteko harremanetan presente dagoen izpiritu menperatzailearen karikatuta da. Edurne Lasak zuzendutako obra da, eta Joxemari Larrañagak egin ditu teknikari lanak. Antzezleei dagokionean, Sara Iriando izango da ikaslea eta Jon Olivares irakaslea. 22:00etan hasiko da obra, eta ordubeteko iraupena izango du. Sarrerak 10 euroan jarri dituzte salgai. Pitxintxun erosi daitezke aurrez, eta bestela, egunean bertan Herriko Antzokiko lehiatilan.

## Gizon bat erreskatatu zuten joan zen eguenean sutan zegoen etxe batetik



S an Roke kaleko 26. atariko etxe batek su hartu zuen joan zen asteko ostegun eguerdian, eta suhiltzaileek bosgarren solairuko balkoi batean babes hartuta zegoen bizilaguna erreskatatu behar izan zuten. Suhiltzaileak ailegatu bitarteko uneak estuasunez beterikoak izan ziren. Laguntza eske ohiuka aritu zen sutan zegoen etxebizitzako bizilaguna eta lasaitzen ahalegindu ziren kalean zeuden zenbait herritar. Etxe barrua sugarretan ikus zitekeen kaletik, eta Pedro Migel Urruzuno kalerantz ematen duen etxebizitzako balkoian hartu zuen babesba bizilagunak, makurtuta, ketik babes hartu nahian. Suhiltzaileek garabiarekin atera zuten gizona eta anbulantzian artatu zuten eta gero Mendaroko ospitalera eraman zuten.

## Sebas Etxanizen aldeko elkarretaratzearekin bat egin zuen Elgoibarko Udalak azaroaren 24an



Arg.: EH Bildu

Sebas Etxaniz preso elgoibartarraren egoera aldatzeko eskatuz elkarretaratzea egin zuten Kalegoen plazan barixakuan. 74 urte ditu Sebas Etxanizek eta 15 urte egingo ditu espetxean preso. Villabonako (Asturias) espetxean dago gaur egun. Udaleko Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Etxanizen aldeko mozioa eta bat egin zuen elkarretaratzearekin.

## Etxebizitza hutsei buruzko ikerketa egingo du Udalak

Elgoibarren hutsik dauden etxebizitzaren gaineko ikerketa egiteko 14.900 euro (BEZa kanpo) erabiliko ditu Elgoibarko Udalak. Ikertalde Aholkularitza Taldeak egingo du azterketa, bi helbururekin: Batetik, herrian dauden etxebizitza hutsen kopurua kuantifikatzea; eta, bestetik, etxebizitza huts horien jabeekin, gaur egun udalerrian dauden etxebizitza beharrei erantzuna ematea laguntzen duten ekimen desberdinen abiaraztea baloratzea. Horretarako, Ikertaldeko beharginek etxe jabeentzako galdetegi bat prestatu dute. Inkestatzaileek ikerketa egiazkoa dela frogatzen duen gutuna eramango dute, eta bestela, azalpen bat eskainiko dute auzotarrek hala eskatzen baldin badute. Doako 900 101 124 telefono zenbakia jarri dute zalantzak argitzeko.

## Udalak aldi baterako bi lanposturen berri eman du

Elgoibarko Udalak aldi baterako administrari laguntzaile bat eta eraikuntzako eta obra zibiletako ingeniari bat kontratatuko ditu, Tokiko Enplegu Planaren barruan. Postuetarako beraien burua aurkeztu nahi dutenek Lanbidera, euskal enplegu zerbitzura, jo behar dute hautagaitza erregistratzeko. Epea datorren abenduaren 5era arte egongo da zabalik. Informazio gehiagorako [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunea kontsultatu daiteke.

## Bakailao pintxo irabazlea San Roke tabernan

'Alcorta bakailaoak' Pintxo Lehiaketan Elgoibarko kanporaketa irabazi zuen pintxoa salgai jarriko du San Roke kafetegiak. Zapatuan eta domekan, 12:00etatik 15:00etara bitartean, jan ahal izango da, 3,5 euroan.

## Elikagai bilketa egingo dute gaur eta bihar Elgoibarren

**G**ipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa egingo du asteburuan Gipuzkoako hainbat herritan, tartean, Elgoibarren. Gizarteratze Mahaiak hartu du bilketaren ardura. Gaur eta bihar egingo dute bilketa, Eroski (Santa Ana eta Bernardo Ezenarro) eta BM supermerkatuetan, 9:00etatik 21:00etara. Iaz, Sanlok eta C.D. Elgoibarrek ere bat egin zuten kanpaina honekin, eta guztira, 13.124 kilo janari bildu zituzten Elgoibarren. Elgoibarko Ongizate Sailak eskerrak eman dizkie janari bilketan lagundu duten boluntarioei.

### Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak Egile enpresa bisitatu zuen Mendaron

Egile taldearen aeronautika-arloa inauguratzeko ekitaldian parte hartu zuen Iñigo Urkullu lehendakariak barixakuan, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapia lagun zuela. Era berean, Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka diputatu Ainhoa Aizpuruak, Mendaroko alkate Sonia García, eta Eduardo Junkera Egile taldeko lehendakariak ere hartu zuten parte. Egile taldea base teknologikoa duten enpresen kooperazio bat da, eta Mendaron du bere egoitza. Erabateko Doitasun Mekanikako jardun nuklearretik sektore desber-



Arg.: Jaurlaritza

dinak hartzen dituzte. Lehendakariak ziurtatu zuenez, Egile taldea berrikuntzarekin hartutako konpromisoaren adibide da, Eusko Jaurlaritzak planteatutako Bas-

que Industry 4.0 estrategiarekin bat datorrena. Mendaroko enpresak 15 milioi euro fakturaztea aurreikusi du 2019rako aeronautika atal berriari esker.

### Indarkeria matxista salatzen hainbat ekitaldi egin zituzten asteburuan Elgoibarren eta Mendaron



Elgoibar

Mendaro

Indarkeria matxistaren kontrako aldarria plazara atera zuten asteburuan Elgoibarren eta Mendaron, azaroaren 25aren hariara antolatutako ekintzetan. Elgoibarren, Haizea emakume taldekoek osatu berri duten batukada taldeak hasi zuten zapatuko ekitaldia perkusio doinuekin eta irrintziekin. Ondoren, plazan bildutako lagunek ordu laurdeneko elkarretaratzea egin zuten, isilean. Era berean, feminismoaren ideiak zabaltzeko sortu zuten Narrutsik taldekoek antolatuta, *Woman in black* ekimena egin zuten. Beltzez jantzita, indarkeria matxistak hil dituen emakumeak gogoratu zituzten lurrian euren siluetak marraztuz, udaletxeko arkupeetan. Gero, emakumeen ikur handi bat osatu zuten Narrutsikoko kideek Kalebarren plazan. Mendaron, berriz, barixakuan egin zuten *Woman in black* ekimena. Bigarren urtez jarraian antolatu zuen Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak. Gizonek hildako emakumeak gogorazi zituzten izen-abizenekin.



# Elkarrekin, inklusioaren alde

**Abenduaren 3a ez da Euskararen Nazioarteko Eguna bakarrik. Ezintasunen bat dutenen eguna ere bada abenduaren 3a, eta aitzakia hori hartuta, Nuala elkarteko lagunak ekarri ditugu gurera. Aniztasun funtzionala edo adimen urritasuna duten pertsonen guraso eta lagunen taldea da Nuala, eta elkartea sortu zutenetik gogor ari dira euren seme-alaben bizitza hobetu eta aniztasun funtzionalak bistaratzeko ahaleginean, benetako inklusioaren alde borrokan. Taldeak babesa eman die, eta baita eguneroko lanean jarraitzeko indarra ere, eta horregatik deia egin diete euren egoera berean egon daitezkeen gurasoetara Nualara gerturatzeko. Harremanetarako: [nualaelkartea@gmail.com](mailto:nualaelkartea@gmail.com) / [www.facebook.com/nualaelkartea](https://www.facebook.com/nualaelkartea).**

- AINARA ARGOITIA -

**D**enok gara jeniok, baina arraina arbolara igotzeko duen trebetasunaren arabera epaitzen badugu, hark idiota dela sinistuko du". Albert Einstein ikertzaile handiaren berbak dira (1879-1955) eta ekitatearen alde egiteko eta bereziki gaur egungo Hezkuntza sistemaren inguruan gogoeta egitera bultzatzeko erabili izan dira sarri. Nuala elkartekoek ere oso bere egiten dituzte hitz horiek. Aniztasun funtzionala edo adimen urritasuna duten pertsonen guraso eta lagun taldea da Nuala, eta gaur egun, 5 eta 20 urte bitarteko hamabi neska-mutilen familiak osatzen dute [Elgoibarkoak dira 11, eta bestea, Mendarokoa]. Nuala Gardner eskoziarrari zor dio izena elkarteak, eta hein handi batean, izana ere bai, Gardnerrekin egindako solasaldi

baten ostean sortu zutelako elkartea, 2016an. Nuala Gardner autismoa duten bi seme-alabaren ama da, eta 2015eko azaroan Anateusk elkarteak eta Udalak gonbidatuta Elgoibarrera hitzaldia ematera etorri zen egunean ezagutu zuten Nuala elkarteko lagunek, haren istorioa askori ezaguna zitzaien arren ordurako. Etxean bizitakoaz jardun zuen Gardnerrek Elgoibarren, semeari eskainitako *After Thomas liburuan* bildutako gogoetaz, eta hari entzundako kontuak irakaspen handia izan zitzaiela aitortu dute Miriam Aldazabal, Brigida Iriondo eta Erminio De Carlo Nualako elkartekideek. Autismoa duen semea dute Aldazabalek eta Iriondok, eta garun-paralisia duen alaba Erminiok. Guraso dira, minak elkartu ditu, eta borroka bat bera konpartitzen dute: euren seme-ala-





ben bitza hobetzea, aniztasun funtzionalak bistartzea eta benetako inklusioaren alde egitea.

“Denok ditugu gaitasunak, denok gauza bera egiteko gai izan ez arren. Har dezagun kontuan pertsona bakoitzaren gaitasuna, ez soilik haren desgaitasuna. Pertsona da lehenengo, eta gero datoz ezaugarriak; eta ez alderantziz”, dio Miriam Aldazabalek. Aniztasunari balioa emango dion gizarte inklusiboa amesten dute. “Gure ahaleginak ez doaz integrazioaren alde, inklusioaren alde baizik”, jaso dute Facebookeko orrialdean ere. Hezkuntzara ekarrita, hauxe: behar bereziak dituzten umeak betiko eskoletan sartzea (integrazioa) ez da nahikoa. Ume horiei garrantzia handiagoa eman behar zaie, beraiek ere badutelako ikasteko eta irakasteko ahalmena, eta hezkuntza jasotzeko eskubidea, baina horretarako, ikastetxea edo hezkuntza prozesua bera da umeari egokitu behar zaiona, eta ez alderantziz.

Ez da erraza, baina eskubidez ari garela, erraza ez izatea ezin da sekula traba izan. Ez da erraza guraso hauen egunerokoa ere, baina zailtasunak adoretuta ari dira, eskubidez dago kiena eskatzen.

5 urteko semea du Brigida Iriondok eta haurrak 2 urte zituenan diagnostikatu zioten autismoa. “Sekulako kolpea izan zen, imajina dezakezun bezala”. “Ohikoa da hori. Diagnostikoa tratatzea ez da inondik inora erraza. Zergatik gertatu behar zaigu hau guri? Zer egin dugu? Egia da gertatzen ari zaiguna?. Zaila da ulertzea eta zailagoa onartzea, eta denok gainditu behar iza-

ten dugu dolua. Pertsonaren arabera, motzagoa edo luzeagoa izan daiteke, baina sekula ez da bi eguneko kontua”, azaldu du De Carlok. “Onartu behar duzu zure seme-alabak ezintasun psikologiko bat daukala, eta era berean, onartu behar duzu gizartearen parte handi batek ez duela arazo honen berri eta zuri tokatuko zaizula hori bistartzea. Ez da borroka erraza”, gehitu du. Diagnostikoa emateaz batera, halakotarako protokoloa jarzen dute martxan osasun-etxeetan eta euren seme-alabak duten adimen urritasun bera dutenen elkarrekin bideratzen dituzte gurasoak. “Ezinbesteko laguntza da hori. Lehenengo babesa. Gurasoak oso bakarrik sentitzen garelako, oso galduta, tokatzen zaizunera arte inork ez dakielako behar beste kontu hauei buruz”, kontatu du Iriondok. Gautenara, Autismoaren Gipuzkoako Elkartera, bideratu zituzten sendagileak Iriondo, Aldazabal eta haien bikotekideak, eta hantxe jaso zituzten lehenengo argibideak. “Semeari nola lagundu azaltzen dizu psikologo batek, aurrera egiteko ezinbestekoa”, argitu du Aldazabalek. Baina hori bezain garrantzitsua izaten da askotan gaitasunak ikusten laguntzea. “Guraso batzuei ere kostatzen zaie batzuetan. Garai batean, ezkutatu egiten ziren ume hauek, baina ‘gaituak’ eta ‘ezinduk’ bereiztea aurrehistoriako kontua iruditzen zait niri, XXI. mendekoa baino gehiago. Denok pertsonak baldin bagara, zergaitik bidali behar ditugu gure seme-alabak bide paralelo batetik”, esan du horren harira De Carlok. “Zergatik ibili behar da gurea piszina ondoko bidean, gainerako umeengandik bereizita? Sar dezatela

gainerakoekin taldean eta jarri dezatela talderako beste begirale bat, batek bakarrik ezingo du-eta", gehitu du horren harira Iriondok.

Aniztasun funtzionalak ageriko egitea dute lehenetasun, agerikoa

dena, ikusten dena, errazago ulertzen eta onartzen delako. "Ez jakintasuna da txarrena. Etxean bertan ere igarri dut nik. Ume-umetatik gureak besteekin batera ibiliko balira leku guztietan gainerakoek ez liekete horrenbeste erreparatuko gureen ezinei. Ez lukete bururik jiratu nire alaba ondoitik pasatzean", dio De Carlok. Hori iraultzeko lan egin behar dela iruditzen zaio Aldazabali ere. Inposatutako diskurtso kategorikoa desegin behar da, "mendekoak" eta "desgaituak" izendapenak bertan behera laga. "Bizitzako uneren batean denok izan gara edo izango gara mendeko edo gaur baino mendekoago. Ez dezagun hori ahaztu", gehitu du Aldazabalek.

## Aurrerapausoak eta erronkak

Pausoak eman direla aitortu dute, bereziki azken hamabost urteotan, baina oraindik zer hobetu asko dago, baita hezkuntza arautuan ere, ustez gai honen inguruan gogoeta handiena egin den esparruan. Ez dute aparteko ezer eskatzen; besteak dituzten aukera berdinak izatea baizik. "Eskubidez dagokiguna eskatzen dugu, eta ematen du limosna eskean gabiltzala. Kiroldegiko arranpala eskatzen ari nintzen ere direnak eta bi entzun behar izan nituen. Eta begira



zer ari nintzen eskatzen. Neuk neukan orduan beharra, baina ez nintzen niretzat eskatzen ari. Bihar zuk ere izan dezakezu premia". Lortutakoa ez da nahikoa, hala ere. Elgoibarko Udalarari, Elgoibarko Izarrari eta beste eragile batzuei esker gauza asko lortu dituztela nabarmendu dute, bereziki aisialdiko eskaintzan, eta esker ona agertu diete. Baina badute kezka bat ere. Umetan adimen urritasunak ez dira horren agerikoak izaten, baina adinarekin gehiago nabarmentzen dira, eta hutsune handiak aurreikusten dituzte. "Nerabe izatera iristen dira umeak eta askok haur txikiei bezala hitz egiten diete; ume ikusten dituzte, baina ez dira umeak. Euren adinekoen behar eta interesak dituzte. Hor lan handia dugu egiteko", zehaztu du Aldazabalek. Naluko nerabeak bi zapatuz behin elkartzen dira, aisia elkarrekin pasatzeko, 18 bat urte betetakoan zaila zaielako euren adinekoen artean lekua bilatzea, baina behintzat, gazteak dauden lekuetara elkarrekin joateko bidea egin dute. Hala ere, esan gabe doa Elgoibarko eta Mendaroko gazte hauek ez dituztela hiri handia-goetan euren ezaugarri berekoek dituzten beste aukera.


Badago beraz zer sortu. Seme-alaben eskubideak bermatzean jarri dute lehenetasuna gurasoek. Helburu horrekin, hainbat ekintza egin dituzte Udalaren laguntzarekin, tartean terapia-saio ezberdinak, eta ekintza berriak ere iragarri dituzte gai hau gizarteratzeko eta aliantzak sortzeko. Abendurako programa ere osatu dute. Hona hemen.

### Abenduaren 13an, Kultur Etxeko hitzaldi gelan 19:00etan.

Zaintzaileak zaintzen. 'Min emozionalean barrena. Kulpa eta frustrazioa'. Hizlaria: Amaia Saenz Aurtentxe, Bideaneko terapeuta

### Abenduaren 18an, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan

'Etorkizuna prestatzen'. Hizlaria: Conchi Rodriguez Atzegi fundazioko arduraduna.



"Denok gara jenioak, baina arraina arbolara igotzeko duen trebetasunaren arabera epaitzen badugu, hark idiota dela sinistuko du".

Albert Einstein

### Baserriko jenero onena, Haritz dantza taldekoen saioa eta Maite Maiorari esker on ekitaldia izango ditu bihar Kontzezio azokak

**B**ihar, larunbata, egingo dute Mendaroen Kontzezio egunaren bueltan antolatu ohi duten izen bereko azoka. Eta ohiko barazki eta ganadu azokaren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Udalak, Debemenen eta herriko hainbat eragileren laguntzarekin. 9:30an zabalduko dute azoka eta baserriko jenerorik onena dastatu eta erosteko aukera izango da frontoian. Sagardo lehia- ketak ere ez du hutsik egin azkeneko urteotako egitarauan, eta aurten Mendaroko Txirindulari Elkarteko eta Lizarpe Mendi Klubeko bazkideak ibiliko dira 11:00etatik aurrera sagardoa zerbitzen. Tarte horretan Ahobizi eta Belarriprest pegatinak banatuko dituzte euskara egin beharraz kontzientziatzeko.

Eguerdian, 12:00etan, Mendaroko trikitixa taldeko neska-mutilak kalejiran irtengo dira Azpilgoetatik eta dantza-saioa eskainiko dute plazan, eta 12:30etik aurrera, Izetako idiek tiratutako gurdian ibiltzeko aukera zabalduko dute. Usansoloko joaldunak ere gonbidatu dituzte aurten, eta 13:00etan irtengo dira kalejiran. Joal-



dunen zintzarri hotsekin batera, hasiko dute sari-banaketa ekitaldia, plazan bertan.

Egitarauan eten bat egingo da gero, 18:00ak aldera arte, biharkoa kuadrillan edo taldean bazkaltzeko eguna izaten dutelako mendarorarrek, baina arratsaldean ere izango da zer ikusi eta zertaz gozatua. Hasteko, 16:30ean, kontzertua eskainiko du herriko Jo ta Ito talde gazteak, Gazte-txean. 18:00etan, berriz, Elgoibarko Haritz dantza taldekoen dantza ema-

naldia ikusteko aukera izango da plazan, eta tarte hori Maite Maiora mendi korrikalariari esker ona agertzeko baliatuko du Udalak. Munduko mendiko korrikalari osoena izendatu dute Maiora, eta egindako ibilbide biribilagatik zoriondu eta Mendaroren izena munduan barrena zabaldu izanagatik eskerrak emango dizkiote. Ondoren, basetxerri izendapeneko saiheski-errea dastatzeko aukera izango da, eta baita Guri 5 erromeria talde gabiriarrarekin dantza egitekoa ere.

# KONTZEZIO EGYNEKO AZOKA

## ABENDUAK 2 LARUNBATA

Logo of Debemena: A circular emblem with a mountain and a sun.

Logo of Mendarri 1981: A shield-shaped emblem with a mountain and a sun.

Logo of Kilobarren: A stylized 'K' with the text 'kilobarren' and 'elkartea'.



# O lentzeroren zakua

**Zergatik erosten duzu auzoko denda txikian?**

Gehigarri honetan aurkituko dituzun boletokin deskontuak eskuratuko dituzu, **abenduaren 1tik 14ra** arte. Erosketa bakoitzeko boleto bakarria erabili daiteke, eta ezin zaizkie bestelako deskontuei gehitu.

1. Tratu gertukoagoa eta pertsonalizatua eskaintzen dizutelako.
2. Aholkatzen dizutelako, eta era horretan zure konfiantza irabazten dutelako.
4. Gertuan erosita, hemen bertakoa balioesten duzulako.
5. Hemen bertako identitate kulturala zaintzen duzulako.
6. Gure bizilagunak direlako eta etxetik gertu ditugulako.
7. Auzoetako gizatasuna mantentzen dutelako, eta gizarte harremanak sustatu
8. Bizia ematen dietelako gure auzoei, eta askok auzoetako jaiak antolatzen eta auzoetan egiten diren ekintzetan laguntzen dutelako.
9. Eskaparateek kaleak janzen dituztelako.
10. Denda handien aldean, enplegu egonkorragoa eta kalitatezkoagoa sortzen dutelako.

GYS SPORT CASA ELGOIBAR  
**ASTIGARRAGA**

Errosario, 18 943 743 268  
Errosario, 21, behea 943 744 386

Bonoa ekarriz gero  
anorak eta lumazko  
txamarretan

**%20eko**  
deskontua  
lortuko duzu.



QUICKSILVER - ROXY  
TRANGOWORLD - TERNUA  
ICEPEAK - COLUMBIA

**AURPEGI  
ETA GORPUTZ  
SESIOAK**

Gantz lokalizatuak gutxitzeko tratamendua

HAURDUNALDI OSTEO ERREKUPERAZIOA

Gorputza findu eta gogortu

Begietako poltsak

Bularrak altxatzeko tratamendua

kokots bikoitza leundu

ESPRESIO-LERROAK

Lepo eta eskotea

Zahartraren kontrako tratamendua

Naranja azala

Aurpegiko tratamendua



Bono hau erakutsiz gero,  
%15eko beherapena  
lortuko duzu

Cristina Garcia

Estetika eta Terapiak Naturalak

Errosario lathu 18 - 943 743 268 - cgarciak@gnail.com

Kupoi honekin  
%10eko beherapena  
zure erosketetan



**GARATE**  
JANTZI-DENDA

# Sara

Rosario, 14 - Tel.: 943 743 555 - Elgoibar



**%15**eko deskontua  
praketan

# Arauri

San Bartolome 6  
943 741 789



Tiket honekin osagarrietan  
**%10**eko deskontua

## NALAI

oinetakoak

San Bartolome, 28  
943 572 104



**%10**eko  
deskontua  
osagarri eta zapatetan

## Ferpi


San Bartolome, 38  
943 740 815

Poltsetan  
eta  
Hongo etxeko  
arropetan  
**%15**  
deskontua



Segi  
gaitzazu  
gure  
facebook  
orrialdean

ferpi moda elgoibar



## 52. Durangoko azoka

Durangoko Azokak 400 nobedade eta 200 kultur ekitaldi baino gehiago izango ditu aurten, eta nobedadeen artean badira elgoibartarren lanak ere. Uxue Alberdik bost liburu aurkeztuko ditu, Haur eta Gazte literaturako lau ale Elkar argitaratxearekin eta *Jenisjoplin* eleberria, Susarekin. Jasone Osorok, berriz, Gazte literaturako bi lan aurkeztuko ditu Elkarrekin, 'Casting-a' eta 'Eskularru beltzak', eta Danele Sarriugartek itzulpen lan bat aurkeztuko du: Geoff Rodkey idazle estatubatuarren Tapper bikiak bildumako hirugarrena, 'Tapper bikiak lehendakari'. Abenduaren 6an zabalduko dute azoka, eta hilaren 10a bitartean, jendez, erakusmahai eta ekitaldiz beteta egongo da espazio hori. Orrialde hauetan euren lan berriez galdetu diegu gure idazleei.

### ▶ DANELE SARRIUGARTE IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA



## "Tapper neba-arreba bikien arteko istilu eta borrokak dira nobelaren ardatza"

Tapper bikien *sorta* arrakastatsuko hirugarren alea ekarri du euskarara Danele Sarriugartek Elkar argitaletxearentzat (Elgoibar, 1989): 'Tapper bikiak lehendakari'. Orain arte bi liburu kaleratu ditu argitaletxe berak, 'Tapper bikiak gerran' eta 'Tapper bikiak New York astintzen', eta Sarriugartek itzuli ditu biak euskarara.

- AINARA ARGOITIA -

♦ 'Tapper bikiak lehendakari', bildumako hirugarren lana. Egiguzu laburpen bat. Zeri buruz ari da?

Bildumako hirugarren alea da hau, eta Claudia eta Reese Tapper neba-arreben arteko istilu eta borrokak dira

nobelaren ardatza. Culvert eskolako seigarren mailako ikasleak dira Claudia eta Reese eta adin horretako neska-mutilei zuzendutako liburua da berez. Kontua da eskolako ikaskideen ordezkaria aukeratzeko unea dutela eskolan, eta Claudiak, ikasleen gobernuko buru izana denez aurrez ere, erabakiko du lehendakari kargurako aurkeztea. Ustekabea izango du, baina, Reese ere aurkeztuko delako kargu horretarako. Izan ere, eskolan debekatuta dute futbolearen jokatzeko eta futbolzaleen interesak defendatu nahiko ditu Reesek, bera ere hautagai bihurtuta. Hori da abiapuntua, baina hortik aurrera beste mila kontu gertatuko dira, mila aldrebeskeria eta kontu xeble. Ez da liburu morala, baina bai laguntasunari balioa ematen diona. Tapper bikiak beti daude elkarrekin lehian, baina azkenerrako beti konpontzen dira.

♦ Ez da hau zure lehen itzulpen-lana. Bide bat egin duzu. Nola ikusten duzu itzulpegintza?

Ez naiz itzulpegintzara bakarrik dedikatzen, baina bai, itzultzen ditut testu literarioak ez diren lan batzuk ere tarteka. Hala ere, tartekako lan batzuk

dira, eta ez nago itzulpegintzaz orokorrean hitz egiteko moduan, ez dudalako ezagutzen, adibidez, administrazioko itzultzaileen lana. Liburuak itzultzea beste esperientzia bat da. Liburu bakoitzaren helburua zein den aztertu behar duzu eta horretara egokitu itzulpena bera ere, baina bai, liburuak itzultzen asko ari naiz ikasten eta izugarri eskertzen diet nigan sinistu dutenei. Askok ikasi dut zuzentzaileek egindako zuzenketekin eta ekarpeneekin, bereziki Angela Davisen 'Emakumeak, arraza eta klasea' liburuarekin. Oso gustura gelditu nintzen itzulpen lan horrekin, nahiz berriro irakurtzen hasten naizenean topatzen ditudan beste modu batera esango nituzkeen kontuak ere. Betikoa da.

♦ *Euskaldunon Egunkaria*-k eta *Berria* egunkariak genero gaietan izan duten eragina ikertzeko beka ere irabazi duzu taldean. Labur, zer da?

Bai, dokumental bat egingo dugu *Egunkaria*-k eta *Berria*-k genero gaietan izandako eraginaz. Gidoia aurkeztu dugu, baina oraindik ez gara hasi lanean, eta ez nago askoz gehiago esateko moduan.

# “Sorkuntzak, sortzaileak eta hartzaileak bat egiten duten topagunea da Durangoko azoka”

## ▶ JASONE OSORO IDAZLEA

‘Eskularru beltzak’ gazteentzako bildumako lehen bi liburuak aurkeztuko ditu Jasone Osorok (Elgoibar, 1971) Durangoko azokan: *Eskularru beltzak* eta *Casting-a. Zapatuan, abenduaren 9an, Ahotsenean* izango da liburuak aurkezten eta, eta 8an eta 9an liburuak sinatzen egongo da. Lau liburuz osatutako bilduma da *Eskularru Beltzak*. Aurten idatzi ditu lehenengo biak, eta datorren urterako argitaratuko ditu ondorengoak.

- AINHOA ANDONEGI -



Jasone Osoro eta Joseba Larratxa, Josevisky, bildumaren ilustratzailea. Arg.: Ikorkotx.

### ♦ Zein mezu zabaldu nahi izan duzu ‘Eskularru Beltzak’ bildumarekin?

Orain arte gazteentzat idatzi izan du-danean helburu nagusia beti izan da gazteak entretenitzea, irakurzaletzea eta literaturara erakartzea. Oraingoan, helburu hori ahaztu gabe, balore batzuk transmititu nahi izan ditut. Batetik, desberdintasunari garrantzia eman diot. Pertsonaiak oso desberdinak dira: liderra, gizajoa, hitz-totela, harrera etxeetan bizi izan dena... Bakoitzak bere ikuspegitik kontatuko du istorioa, eta irakurlea batekin edo bestearekin identifikatuko da. Beste mezu garrantzitsu bat ere helarazi nahi dut: ahulak diruditenak askotan ez direla hain ahulak, eta indartsuak diruditenek, aldiz, badituztela euren ahultasunak. Hori dena biltzeko boxeoaren metafora erabili dut. Alde batetik boxeoak kirol biolentoa da, baina beste alde batetik, bizitzaren metafora da, bizitza bera ere borroka delako. Boxeolariak jakin egin behar du kolpeak ematen, baina baita ere jasotzen eta lurrera erortzean altxatzen.

### ♦ Zein harreman izan duzu zuk boxeoarekin?

Ez dut sekula boxeoarekin harremanik izan, eta aurreiritzi negatiboa neukan. Bil-

duma hau idazteko boxeo konbateak ikusi ditut zuzenean eta nire iritzia aldatu dut. Ez naiz zaletu, eta ez dut esango orain boxeoak maite dudarik, baina ikasi dut boxeoak ulertzen. Boxeoaren alderdi positiboarekin geratzen naiz.

### ♦ Bilduma izaerarekin idatzi duzun es-treinakoa izan da.

Bai. Elkar argitaletxeak eskatu zidan gazteentzako lau liburuz osatutako bilduma bat idazteko. Horrek hasieratik plangintza bat eskatzen du. Nik argi neukan ez nuela nahi protagonista bakarrean zentratu, beraz, liburu batetik bestera protagonismoa aldatu egingo da. Momentuz bi liburu argitaratu ditut, hirugarrena idazten nabil eta laugarrena datorren urtean idatziko dut.

### ♦ Zein alorretan idazten duzu gustu-roen?

Heldu, haur zein gazteentzat idazterakoan garrantzitsuena istorioan sinistea da, bestela oso zaila delako mezua transmititzea. Ni gazteentzako literaturan gehiago dibertitzen naiz. Ez dut esan nahi hartzaile gazteak errazak direnik, baina helduen-

tzako idazten beste karga bat sentitzen dut. *Greta* idatzi nuenetik *Hamabietan bermuta* idaztera hamabi bat urte pasatu ziren. Dena dela, badaukat helduentzako istorio bat, eta bilduma honen ostean hasiko naiz idazten.

### ♦ Zer da Durangoko azoka euskal idazleentzat?

Sorkuntzak, sortzaileak eta hartzaileak topo egiten duten topagunea da. Idazleek eta musikariek euren lanak aurkezteko eta saltzeko lekua ere bada, eta hartzaileak zuzenean ezagutzeko gunea ere bai. Hartueman zuzenerako foro bat da.

### ♦ Zein egoeratan ikusten duzu euskal literatura?

Asko argitaratzen da euskaraz, bartzuen ustez gehiegi, agian, gero ez delako horrenbeste irakurtzen. Baina nire ustez beharrezkoa da argitaratzea. Irakurzaletzeko garrantzitsuena da askotariko liburuak argitaratzea, irakurzaletasuna bultzatzeko aukera eskaini behar zaiolako hartzaileari. Sorkuntzari dagokionean garai onean dago euskal literatura.

## ▶ UXUE ALBERDI IDAZLEA

Nagore Vargas emakume zailduaren istorioa kontatu du Uxue Alberdik (Elgoibar, 1986) Susa argitaletxearekin argitaratu berri duen azken lanean, *Jenisjoplin* eleberrian, eta zeharka, Euskal Herriak azken urteetan bizi izandako gatazka gordinaren kontakizuna ere egin du. Elgoibarren ere aurkeztu zuen liburua, eta ekitaldi haren laburpena [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean duzue ikusgai.

- AINARA ARGOITIA -

♦ **Nobelan gai asko kontatu dituzu, sufrimendu handiak. Eskertzen da esatea kostatu zaigun gauza asko esateko egin duzun ahalegin hori. Zeuk ere halako zerbait aitortu duzu.**

Bai, nobela plataforma bat izan da niretzat bestela esango ez nituenak esateko. Iruditzen zait denok sentitzen dugula hainbat hitz esanahiz hustuta daudela eta, politikaz hitz egiten dugunean, ez dakigula ondokoak nola entzungo dituen gure hitzak, batetik, hitzak eurak gastatuta, esanahiz hustuta edo manipulaturik daudelako, eta bestetik, gatazkaren gordinak bandotan banatuta eduki gaituelako eta esaten zenari baino gehiago erreparatu izan diogulako esaten zuenari. Nobela honek aukera eman dit pertsonaia bat marraztu eta haren ertz guztiak eta iragana erakusteko, eta hala, irakurleak, ideia politikoetara iritsi denerako, oso argi ikusi du Nagoreren ideia guzti horiek nondik sortuak diren: ahultasunetik batzuetan, indarretik beste batzuetan, kontraesanetik beste zenbaitetan...

Baina, jakina, hizketan edo bertsotan ari garela, ez dugu uneoro informazio guzti hori izaten. Gure solaskideen iraganaz oso gutxi dakigu, ez dakigu ezer momentu jakin horretan bizi duen egoera emozionalaz, eta besteek ere ez dakite guk nondik hitz egiten dugun.

♦ **Gai asko landu dituzu, baina denak pertsonaia baten inguruan: Nagore**



Arg.: Dani Blanco

# “Ez dut inor errudun sentiarazi nahi, baina bai klaseari buruzko gogoeta egitera bultzatu irakurlea”

**Vargas, emakume errebelde, ausart eta erosotasunaren kontra egiteko hezitakoa. Hain marraztu duzu ondo, norbaitek pentsa dezakeela autobiografikotik asko duela, baina zure buelta ezagututa, ez du ematen.**

Niretik asko dauka, baina ez, ez da autobiografikoa. Aita Espainiatik etorritako etorkina du Nagorek, langile klasekoak dira, langile auzo batean bizi direnak, eta bai, gure gurasoak ere langileak dira, baina konturatu naiz langile-klasean ere mailak daudela. Gure nerabezaroan, denok klase ertainekoak ginela saldu zituzten, baina 13 bat urterekin Institutura pasatu ginenean eta inguruko herrietakoekin batu ginenean, konturatu nintzen hori dena gezurra zela.

Nagore Vargasek berak ere bazterreko errebeldeak eta errebelde ideologikoak bereizten ditu, eta nire kasuan, nire iraganagatik-edo, beharbada normala-

goa izango nuen errebelde ideologikoen-gana biltzea, baina ez, nik bazterreko errebeldekoak egin nituen lagun Institutuan, erdal familatik zetozenak eta gurea baino etxe pobregoetan bizi zirenak. Nerabe zarela beti pentsatzen duzu zure etxea normala dela, baina gure etxeke lurra egurrezkoa zen, bitrozeramika geneukan, gasa sartzen hasi zirenean gasa sartu genuen, liburu pila bat geneuzkan eta ordenagailuak iritsi zirenean, etxeratu genuen guk ere bat. Ezagutu nituen, baina, libururik gabeko etxeak, alfabetatu gabeko gurasoak zituzten lagunak, beraien seme-alabei notak eskatzen ez zituzkieten gurasoak eta tabernetan eta kalean hazitako umeak, eta orduan konturatu nintzen oso eremu babestutik nentorrela ni, kulturari garrantzia ematen zioten leku batetik eta zaintza gertukoari eta haurren pausoak jarraitzeari garrantzia handia ematen zion familia batetik, eta konturatu



nintzen pribilejio horiek klasearekin lotuta zeudela. Gerora ezagutu dut baita ere benetako langile klase horretatik etorritako jendea, oso ezkertiarra zena, ideologikoki oso politizatua, eta bat egin dugu euskaltzaletasunaren edo herriaren askapenerako beste borroka batzuetan. Aspalditik neukan hori dena kontatzeko gogoia eta identitatez eta identitatearen berrasmatzeari buruz hitz egiteko nahia, maila pertsonalean nahiz kolektiboan.

♦ **“Ez nintzen kontra egitera ausartu, baietz egin nion buruaz, nire baitan taxuzko euskaldunak nor ziren argi neukan arren: ikastolakoak, arratsaldeetan solfeora, euskal dantzara eta ingelesezko klase partikularretara joaten zirenak...”, diozu. Erruduntasunetik idatzita dagoela ematen du.**

Ikastolei aitortu behar zaie egindako lana. Oso beharrezkoak izan dira eta dira oraindik ere, baina iruditzen zait begiratu behar dugula beste alderdi batetik ere. Ez dut uste euskaldunen kasuan autoflajelazioa denik inondik inora eraikitzeko bidea, iruditzen zaidalako komunitate zapaldu bat garela eta bizirauteko estrategiak landu ditugula eta lantzen jarraitu beharko dugula, baina hori alde batera utzita, bai iruditzen zait eskoletan eta ikastoletan ez dela klasearen gaia landu, generoarena eta jatorriarena landu diren bezala. Atzera begira jarrita, konturatzen naiz eskolaz kanpoko jardueretan genbiltzan gehienok ikastolakoak ginela sasoi batean eta beste eskola publikoetako umeak gehiago zebiltzala kalean, eta proportzioan, jende pobre gehiago zegoela eskola publikoetan ikastolan baino. Eta oraindik ere esaten da aisian eta udan egiten dela nabarmenen umeen arteko klase diferentzia. Eta ez dut erruduntasunetik bizi, baina kokoteko bat bai eman niola neure buruari nerabezarotan, uste nuelako euskaldun bakarrak ikastolakoak ginela. Ez dut inor errudun sentiarazi nahi, baina klasearen inguruan gogoeta bat egitera bultzatu nahi dut irakurlea, zapaldua dena ez delako zapaldua eremu guttietan, eta pribilejioduna ez delako beti pribilejioduna.

## “Aspalditik neukan identitatez eta identitatearen berrasmatzeari buruz idazteko gogoia”

♦ **“Jarrera bati luzaroegi heltzeak ahuldu egiten gaitin”, dio Irantzuk liburuan, eta oskoletik askatu berri den otarrain zaugarriaren figurarekin amaitzen duzu obra. Herri honen historiak ere badu hortik zerbait. Ala?**

Otarrainaren metafora Nagoreri dagokio. Eraiki duen armadura gogor horrek hondamenera daraba eta bere burua berrasmatu behar du, baina oraindik kanpora begirako jantzi berria ez dio eraiki bere buruari, eta zalantzas beteta dago. Eta gauza bera gertatzen zaio derrigor bere burua defendatu behar duen edozein pertsona edo kolektibori. Herri gisa, oso gatazka gordina bizitakoak gara eta bizitzen ari gara, eta horrek eraman gaitu momentu batzuetan armadura bat eraikitzen, jarrera epikoak hartzen, gure kontraesanak ez erakustera eta gure minak eta zalantzak isiltzen. Gatazkaren intentsitatea bolumenez apaldu den honetan, baina, arrakaletatik min zaharrak, kontraesanak eta zalantzak agertzen hasi dira, eta oso zaila ari zaigu egiten horiek modu osasuntsu batean kudeatzea, besteak beste errelatoen gerra ere hor dagoelako. Ematen du askeago garela gure emozioak agertzeko eta besteekin enpatizatzen, baina errelatoaren kontuan tratatzen gara.

♦ **Bada pertsonaia bat, Luka, oso deigarria egin zaidana. Freenlace-a da, aberri gabea, baina berak ematen du lasaitasuna. Izugarria iruditu zait Luka.**

Badaude izaera batzuk zarata handia egiten dutenak eta oso sendoak dirutenak, baina gero pixka bat hazka eginez gero, konturatzen zara ahuletik ere badutela. Luka esango nuke oso izaera sendokoa dela, baina ez duela zaratarik egiten. Liburua idazten ari nintzela *La sociabilidad del sur* izenburuko artikulua irakurri nuen.

Hegoaldeko herrietan ondo bizitzearen gakoak zeintzuk ziren azaltzen du: denborari denbora ematea, lasai bizitzea, jendetasuna, gauzak zeharka esateko gaitasuna... Eta liburuan, Nagoreren momenturik gogorrean, Lukak jolasetik hartzen du kontua, desdramatizatu egiten du egoera eta arrazoiari karga kendu. Hortik asko dugu ikasteko. Lukak balio izan dit, era berean, identitate esentzialeetatik ihes egiteko. Askotan identitateaz hitz egiten dugunean, badirudi esentzia batez ari garela. ‘Zergatik gara euskaldunak?’ galderari arrazoi bat bilatzen ari gataizkio, eta Luka, ez. Luka aberri gabea da, eta euskalduna da hala izatea erabaki duelako. Identitate askorekin gertatzen zaigu hori. Nagorek identitate berria eraiki behar du, eta horregatik jarri diot Luka ondoan, lekizorik eman gabe berak behar duen patxada emateko.

♦ **Zure laugarren luzea da, baina iruditzen zait nobela honen egitura osatzeko lan handia hartu duzula, salto bat eman duzula.**

Hiru urteko lana izan da, eta bai, orain arte idatzi dudana lanik konplexuena da, hainbat ertzetatik idatzi behar izan dudalako eta pertsonaia, tonu eta espazio asko kudeatu behar izan ditudalako, baina hala ere, jende askok esan dit saltoaren kontu hori eta alarma batzuk piztu zaizkit. Eta sentitzen dut orain artekoa defendatzeko gogoia. Lanei buruz egiten dugun balorazio horretan beste kontu bat ere sartzen da sarri, eta ez dut esaten zuk hala diozunik, baina nobela irakurri ez dutenek ere aipatu didate salto hori eta nago dela politikaz eta arazo sozialez hitz egin dudalako, maskulinoztat jo izan diren gauzetaz. Maskulinoztat ditugun gauzetaz ari garenez, uste dugu serioa dela. Ipuinetan askoz gehiago abiatzen gara sentsazioetatik eta emozioetatik, baina esan beharrik ez dago intuizioetan eta emozioetan arakate horretatik ere ateratzen dela fundamentu handia. Hala ere, ipuinari baino errazago ematen zaio balioa nobelari, eta emozioei eta intuizioei baino errazago ematen zaio balioa pentsamenduari.

## Herriko Antzokia txiki geratu zen Txomin Mujikak zuzendari gisa eskaini zuen azken kontzertuan

Santa Zezilia Eguneko kontzertu berezia eskaini zuen domekan Udal Musika Bandak, baina aurtengoa are bereziagoa izan zen, izan ere, Txomin Mujikak zuzendari gisa eskaintzen zuen azkena izan zen-eta. Omenaldi berezia eta hunkigarria egin zioten bandako kideek eta lagunek Txomin Mujikari. Herriko Antzokia txiki geratu zen, eta hainbat herritar antzokira sartu ezinda geratu ziren kanpoan. Txomin Mujika Latxak berak esango lukeen moduan "apoteosikoa" izan zen. Ezustez eta opariz beteriko omenaldia jaso zuen Txomin Mujikak. Bere bizitzako eta musikari gisa egin duen ibilbideko argazkiekin osatutako bideo bat jarri zioten lehenengo, eta hunkitu egin zen. Elgoibarko alkate Ane Beitiak, intsignia eta pergaminu bat opa-



*Txomin Mujika eskerrak ematen.*

ritu zizkion Udalaren izenean, eta bandako kideek ere koadro bat eman zioten. Bandako kide izandako hainbat lagun ere igo ziren oholtzara, eta musika munduko beste hainbat lagun

mezuak ere jaso zituen bideo bidez. Mujikak eskerrak eman zizkien bandako kideei, omenaldia prestatu zuten guztiei eta familiari, bereziki, emazteari, izan duen pazientziagatik.



## Kanta eta jolas tradizionalen liburuxka-DVDa banatu du Elgoibarko Udalak ikastetxeetan

Betiko 51 kantu eta jolasekin osatutako Jira Bueltan liburuxka-DVDa banatu du Elgoibarko Udalak ikastetxeetan, LHko 1. mailan, hain zuzen ere. Debarroko lau udalen babesa izan du proiektuak (Eskoriatza, Aretxabaleta, Eibar eta Elgoibar), eta guztira 9 ikastetxetako 300 bat eskola umek hartu dute parte. Ahotsak Ikasgelan egitasmoaren barruan eginiko lana izan da hau. 2011n jarri zuen martxan Badihardugu elkarteak egitasmoa, eta 2015ean batu zen Elgoibarko Udala proiektura. Durangoko azokan ere egongo da liburuxka-DVDa erosteko aukera. Horrez gain, liburuxka-DVDan datozen kanta eta jolas guztiak *Ahotsak Ikasgelan* webgunean ere jarri dituzte herritarren eskura: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/> eta web atari horren bidez erosteko aukera ere izango da, Durangoko azoka igaro ostean.

## Abenduaren 11n jarriko dituzte salgai Eguberrietako bertso jaialdirako sarrerak

Aurtengo eguberrietako bertso jaialdirako sarreren aurre-salmenta abenduaren 11tik 22ra itzango dela jakinarazi dute Elgoibarko Izarrako arduradunek. Sarrerak Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen egoitzan eros daitezke epe horretan, eta, ondoren, sarrerarik geratzen bada, egunean bertan kiroldegian jarriko dituzte salgai. Sarreren prezioa 11 eurokoa da (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 10 euro). Abenduaren 28rako antolatu du Elgoibarko Izarrak Eguberrietako bertso jaialdia, Udalaren eta Kirol Patronatuaren lankidetzarekin. Aurtengoan ondorengo bertsolariek hartuko dute parte: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Miren Artetxe. Gai-jartzaile lanetan Uxue Alberdi arituko da. Bertso jaialdia 22:00etan izango da, Olaizaga kiroldegian.

## Elgoibarko Euskarak 365 Egun Taldeak 'Euskaraldia' proiektua aurkeztuko du domekan Kalegoen plazan

Elgoibarko Euskarak 365 Egun Taldea 2013an sortu zen, eta ordutik elgoibartarron euskaltasuna aldarrikatzeko ekintzak antolatu izan ditu, Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan. Aurtengoan, euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasatuko dira. Orain arte euskararen alde zeudela esateko irten badira plazara, aurten euskararen alde egiteko bilduko dira.

Hala, Euskaraldia izeneko egitasmoa aurkeztuko dute domekan, Euskararen Nazioarteko Egunean, Kalegoen plazan, 13:00etan. Elgoibartarrok euskaraz gehiago egiteko proposamena da Euskaraldia. Euskaltzaleon Topaguneak eta Eusko Jauriaritzak prestatu dute proiektua, baina bestelako erakunde publikoek eta euskalgintza zibilak ere bat egin dute proposamenarekin. Elkarlanean sortu eta garatuko da Euskaraldia proiektua. Une honetan, Euskal Herriko lurralde guztietako 40 herritan lantzen



dihardute proiektua, baina helburua ahalik eta herri gehienetara zabaltzea da. Elgoibarko Euskarak 365 Egun Taldeak abenduaren 3an Kalegoen plaza jendez betetzeko deia egin die elgoibartarrei.



### Pegatina lehiaketa egin dute BH Institutuan Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, pegatina lehiaketa egin dute ebaluazio honetan Elgoibar BH Institutuan. Arduradunek esan dutenez, gizartean hedatzen ari den biolentzia matxistari kontra egiteko helburuarekin antolatu dute lehiaketa. DBHko ikasleek hartu dute parte, eta bigarren mailako Mariam Ahdadou izan da irabazlea.

### Euskarazko esaldien lehiaketak egin dituzte Elgoibarren eta Mendaron, Euskararen Egunaren harira



Elgoibar



Mendaro

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, euskarazko esaldien lehiaketa antolatu dute Elgoibarko eta Mendaroko Gaztelekuek. Elgoibarren Aiala Sierra izan da irabazlea, *Ilargiraino eta bueltan erabiliko zaitut* esaldiarekin. Kamisetak atera dituzte esaldi horrekin, eta ikastetxeetan banatuko dituzte. Mendaron, bestalde, Judith Madariagaren *Euskara belarritik sartu eta bihotzean geratu* esaldiak irabazi du. Mendaroko Udalak ateratzen duen egutegian agertuko da esaldia. Irabazleak Morroskilo dendan euskarazko liburu edo CD bat erosteko bonoa jasoko du.


## Aritza Monasteriok bide berria ireki du Nevado Hualcan mendian, Peruko Andeetan



**A**ritza Monasterio elgoibartarrak eta Alik Berg kanadarrak bide berria ireki dute Peruko Andeetan. Bi mendizaleek Mendikate Zurian dagoen Nevado Hualcan (6.125 m) mendiko ipar hormaren balizko lehen igoera egin zuten. 1.000 metro luzeko bidea ireki zuten, konpromiso eta zailtasun tekniko handikoa: ED1, M6, 85°, VI. *Nadie sabe nada* deitu zioten uztailean irekitako bide berriari. Gainera, ipar horma igo ondoren, hego isuritik jaitsi ziren; hau da, mendiaren zeharkaldi integrala egin zuten. Estilo andinoan egin zutela zehaztu du Monasteriok, alegia, oso arin joateaz gainera, besteak beste, ez zuten mandazainen laguntzarik izan eta ez zuten sakelako telefonorik edo satelite telefonorik erabili. Sei eguneko jarduera bat izan zen, eta den-dena bizkarzakuetan eraman zuten. Peruko Andeetan, mendi-gidari lanetan aritzen da Aritza Monasterio ([www.andinista-adventures.com](http://www.andinista-adventures.com)), 1993tik bizi baita Huarazen. Han Alberque Andinista aterpetxea kudeatzen du. Mendikate Zurian mendi gidaria izateaz gain, makina bat eskalada eta bide berri ireki ditu urteotan Alpamayon, Chacarajun, Taullirajun, Siula Granden, Trapecion... eta beste hainbat menditan.

### Julen Urruzola Espainiako selekzioaren deialdian

Promesa mailako Espainiako Eskubaloia selekzioak bost jokalaririk gipuzkoar deitu ditu Villa de Aviles Nazioarteko txapelketa jokatzeko, eta horien artean da Julen Urruzola elgoibartarra. Sanloko Urkunde kadete taldean jokatzen duen jokalaririk Portugal eta Errumaniako selekzioen aurka jokatuko ditu lagunarteko partidak Avilesen (Asturias, Espainia), abenduaren 13tik 18ra bitartean. Urruzolak aurrez ere jokatu izan du Espainiako selekzioarekin, iaz infantilekin aritu zen.



## Ander de Luis eta Ainhoa Lendinez nagusi Alkortako Igoeran

Ander de Luis soraluzearrak eta Ainhoa Lendinez elgoibartarrak irabazi zuten XXII. Alkortako Igoera, 21:25eko eta 21:26ko denborekin, hurrenez hurren. Aurreko zapatuan egin zuten eguraldi bustiak eta hotzak ez zuten lar lagundu, baina hala ere, hamazazpi lagun lehiatu ziren Mendaroko Ezker Abertzaleak urtero antolatzen duen lasterketan, eta esprin dotorean bukatu zuten lasterketa helmugaraino elkarrekin igo ziren Ander de Luisen eta Gorka de la Horra elgoibartarrak. Bi horiengandik minutu eta erdi ingurura ailegatu zen hirugarren sailkatua, Hasier Murua elgoibartarra. Herrikoen artean, berriz, Jon Larrañaga izan da azkarrena, 27:23ko denborarekin.



## Jokin Muñoz hirugarren, Gipuzkoako Maratoi Txapelketan



Donostiako maratoiarearen 40. ekitaldian 3.300 lagunek parte hartu zuten, joan den azaroaren 26an. Gizonezkoetan afrikarrak izan ziren nagusi eta hiru keniar sailkatu ziren lehen hiru postuetan. Emakumezkoetan Rehima Serro etiopiarra gailendu zen. Gipuzkoako Maratoi Txapelketa ere bazen Donostiakoa eta hirugarren postua eskuratu zuen Jokin Muñoz mendararrak. 42,195 kilometroko ibilbidea 2 ordu 35 minutu eta 14 segundoan osatu zuen, eta sailkapen nagusiko 17. postuan ailegatu zen Anoetako estadioan zegoen helmugara. Roberto Gonzalez elgoibartarrak ere lasterketa aparta egin zuen eta sailkapen nagusiko 24. postuan amaitu zuen maratoia, 02:37:25eko denbora eginda. Ander Zulaika mendararrak 43. postua lortu zuen, 02:38:59ko denborarekin. Elgoibar eta Mendaroko lagun gehiagok ere amaitu zuten maratoia.

## Xakelari elgoibartarren emaitzak Gipuzkoako banakako Txapelketan

Elgoibarko Mekatar Iriondo Xake Taldeko sei kidek parte hartu dute Gipuzkoako banakako xake txapelketan. Absolutu mailan Juan Manuel Navarro izan da ordezkari bakarra eta zazpi jardunaldi jokatu ostean, 24. postuan amaitu du. Bigarren mailan lehiatu dira Mikel Leon eta Markel Kerexeta eta eskura izan dute maila absolutura igotzea. Laugarren postuan sailkatu zen Leon eta bosgarrengoa Kerexeta, biak hirugarren sailkatuarekin berdinduta. Tamalez, lehen hiru sailkatuek lortu dute igoera. Hirugarren Mailan lehen lau sailkatuak igotzen ziren, eta Iban Fernandez eta Vicente Santos xakelari elgoibartarrak sailkatu ziren hirugarren eta laugarren postuetan, hurrenez hurren. Hortaz, Bigarren Mailan arituko dira hurrengo denboraldian. Bestalde, Eskolarteko Xake Txapelketa abenduaren 17an jokatuko da Elgoibarko Xake Taldeak pista beltzean (Juan Mugertza kalea) duen egoitzan, 10:15etik aurrera. Parte hartu nahi dutenek bertan agertu beharko dute. Egun berean, 16:00etan, senior mailakoen txapelketa azkarra jokatuko dute.

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 2  
12:00 Elgoibar – Lagun Onak (Oho. infantilak)  
16:00 Elgoibar – Eibartarrak (1. erreg.)  
18:00 Elgoibar – Urki (Oho. jub.)  
Domeka, 3  
10:00 Elgoibar – Lengokoak (Inf. Txiki)  
12:00 Elgoibar – Ikasberri A (1. jub.)

### ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 2  
10:00 Zubacor Elg – Ereintza (Inf. mut.)  
11:15 Bacalaos Alkorta – Pulpo (Inf. nes.)  
12:30 Bankoa – Urola (Kad. mut.)  
16:00 Beristain – Leizaran (Jub. mut.)  
17:45 Astigarraga GYS – Urnieta (Jub. nes.)  
19:30 Lauko Elg. – C.B. Kukullaga (Senior emak.)  
Domeka, 3  
10:00 Arilan – Kukullaga (Kad. nes.)  
11:30 Tecnifuelle – Kukullaga (Jub. nes.)  
13:00 Salento – Ilcapo Hondarribia (Sen. giz.)

### ESKUBALOIA (IMH Kiroldegian)

Zapatua, 2  
11:00 Elgoibarko Sanlo B – Elgoibarko Sanlo B (Aleb. nes.)  
Domeka, 3  
10:00 Elgoibarko Sanlo – Pulpo (Aleb. mut)

## Kirol Federatuaren Urteko Sarietarako proposamenak

2017 urtean nabarmendu diren kirolari, entrenatzaile, laguntzaile, zuzendaritzako kide edo babesleak saritzeko, Elgoibarko Kirol Elkarteek abenduaren 12ra arte aurkeztu ditzakete beraien proposamenak. Elgoibarko Udal Kirol Patronatua 2007 urtean hasi zen Kirol Federatuaren Sariak antolatzen, herriko 19 kirol klubek urtean zehar egiten duten lana goraiatzeko asmoz. Aurtengo sari banaketa ekitaldia abenduaren 21ean izango da, Musika Eskolako auditoriumean, 20:00etan.

## Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa abenduaren 16tik 22ra jokatuko dute

Elgoibarko 27. Maisuen Nazioarteko Xake Txapelketa abenduaren 12tik 22ra bitartean jokatuko dute udaletxeko pleno aretoan. Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, Zubi-Ondo Xake Taldeak eta Xakeko Euskal Federazioak antolatzen duten txapelketan goi mailako xakelariak parte hartuko dute aurtengoan ere. laz, Michael Oratovsky xakelari errusiarrak lortu du garaipena bere estreinako parte hartzean.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nitzuke, arratsalde. Elgoibarren zein Mendaron.  
☎ 602 490 595

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Interna edo orduka. Asteburuetan ere bai. ☎ 632 953 013

Umeak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago. ☎ 633 401 678

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka, gauaz ere bai.  
☎ 629 872 270

Adinekoak zaintzeko prest nago.  
☎ 617 350 350

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gidabaimena daukat.  
☎ 674 687 863

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Interna edo orduka. ☎ 634 209 087

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Ordutegi malgua. Interna edo orduka.  
☎ 688 627 687 (Katherine)

Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko.  
☎ 637 102 725 / 943 744 033

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 628 524 420

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Formazioa eta eskarmentua ditut. ☎ 602 161 496

Baseriko lanak edo garbiketara egiteko eta sukalde laguntzaile moduan aritzeko prest nago. ☎ 617 846 775

Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Titulua eta esperientzia ditut.  
☎ 688 639 371

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketara egiteko edo zerbitzari lanetarako prest nago.  
☎ 649 425 356

Adinekoak zaintzeko prest nago.  
☎ 699 535 728

Adinekoak zaintzeko, garbiketara egiteko edo zerbitzari lanetarako prest nago.  
☎ 691 500 787

Adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz.  
☎ 626 435 491

**Eskaintzak**

Sakeleko telefonoa erabiltzen irakatsiko didan pertsona bat behar dut. Ordaintzeko prest nago.  
☎ 690 758 905 (Amelia)

Zerbitzaria behar da Mendaroko taberna batean asteburuetan lan egiteko.  
☎ 678 396 522 (Maidier)

**ETXEBIZITZAK.....**  
Etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ 602 490 595

Babes Ofizialeko etxebizitza salgai lñigez Karkizao kalean. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Bi logela, komuna eta jangela-egongela. Hegoaldera begira. Garajea eta trastelekua ditu.  
☎ 678 498 626 / 680 266 090

Babes Ofizialeko etxebizitza salgai lñigez Karkizao kalean, Elgoibarren. Bosgarren solairu batean, igogailuarekin. Hiru logela eta bi komun ditu, eta hegoaldera begira dago. Garajea eta trastelekua ere baditu.  
☎ 620 025 161 / 699 547 832

Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 718 853

Logela bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 669 173 635

Hiru gelatako etxea hartuko nuke alokairuan, astebeterako, abenduaren 29tik urtarrilaren 5era. ☎ 629 956 062

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 259 560

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 626 329 979

**BESTELAKOAK.....**  
Karakate elkarte gastronomikoko akzioa saltzen ditut. ☎ 679 843 332

Identifikazio txapa galdu dut. Alde batean C.R. inzialak ditu, eta beste aldean nire datuak. ☎ 659 254 343

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Etxejabe batek bere etxean egin beharreko aldaketa bazuengatik komunitateak diru bat jasotzea adostu genuen batzarrean. Egun, komunitateak epe finkorako kontu batean dauka diru hori. Azkeneko batzar batean, baina etxejabeetako batek bere parte itzultzeko eskatu zuen. Jakin nahiko nuke behartuta ote gauden diru hori itzultzera, kontuan izanda epe finkorako kontu horretan legeak komunitateentzako ezarritako gutxienekoa baino diru gehiago daukagula.**

Epe finkorako kontuan legeak ezarritako gutxieneko erreserba-funtsa baino diru kopuru gehiago egon ala ez, diru hori jabekide guztiena da, eta beraz, komunitateari dagokio diru horrekin zer egin erabakitzea.

Kontu horretan daukazuen dirua komunitatearen diru-funtsa da, eta beraz, komunitatearen onespina beharko da diru hori banatzeko. Jabekideen batzarra da diru horrekin zer egin erabakitzeko eskumena daukan bakarra. Beraz, etxejabe batek ezin du diru hori itzultzea exijitu eta ezta diru hori partaidetza-kontutik deskontatzeko eskatu.

**AHOLKUA: Legeak ez du esaten jabekideen batzarra derriortuta dagoenik likidazio indibidualak egitera. Betebehar bakarra dauka: urtean behin batzea, urteko diru-kontuak eta aurrekontua onartzeko. Momentu horretan eztaibadatu daitezke kontu hauek.**



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Hai-zea!** Muxu potolo bat larraitz, laiene, lrantzu eta Jabiren partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Elene,** hilaren 9an 10 urte egingo dituzulako. Familia-koen eta bereziki, Estani- sen partez.



Zorionak, **aita,** 50 urte egin dituzulako. Etxeko en partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Adei,** abenduaren 6an 2 urte egingo dituzulako. Zeinen zoriontsu egiten gaituzun! Gura- soen partez.



Zorionak, **Eire,** asteazkenean 2 urte egingo dituzulako. Zein azkar pasatzen den denbora. Muxu handi bat, pittin!



Zorionak, **Malen,** gaur 3 urte egin dituzulako. Etxeko denon partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Itsaso!** 5 urte, eskua bete! Muxu handi bat etxeko en, eta bereziki, Beñat, Oihane eta Saio- aren partez.



Zorionak, **Lea!** 3 urte! Patxuak familixakuen partez!



Zorionak, **Nahia,** Elgoi- bartik Bilbora! 17 urte! Txikia izan denak baka- rrik dauka handi- tzeke aukera. Amama, aitxixa, Maite eta tio.



Zorionak, **Aimar,** astele- henean 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, lagun en eta batez ere, Libe- ren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

## Lagunduko al diguzu ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA OSATZEN?

Aurreko lau urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bul- tzatuta, aurten ere **abenduaren 24an** Elgoibarko Izarraren ton- bola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu. Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera? Animatzen bazara, esan ahal duzun azkarren tonbolarako erregalua ema- teko prest zaudela. Dagoeneko hasi gara opariak jasotzen!



Elgoibarko Izarraren aldeko  
**TONBOLA**

Abenduak 24,  
11:00etatik 14:00etara,  
Kalegoen plazan

1.000 erregalu  
baino gehiago...

... eta opari  
gehiago!



Harremanetarako:  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
**943 744 112**



San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)



Mugarik gabeko ikusmena momentuan

**IRAULTZA BERRIA  
LENTE PROGRESIBOETAN**

## 1 BARIXAKUA

**18:30** Kantu kalejira. Arno Guraso Elkar-teak antolatuta, Mendaroko Garagar-tzako elizaren aurrean.

**21:30** Bideo forum-a. *Volar* filma lan-duko dute Loredi Salegik dinamizatuta. Haizeak antolatuta, Berdintasun Sailaren laguntzarekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**22:00** Antzerkia: *Bihotz txatalak* obra taularatuko du Taupada antzerki taldeak. Herriko Antzokian.

## 2 ZAPATUA

**9:30** Kontzezio azoka Mendaron.

**10:00** Gabonetako apaingarrien tailer-ran. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Atxutxiamaikaren lokalean (merkatu plazan).

## 3 DOMEKA

**13:00** Euskararen Nazioarteko Eguna. Euskaraldia proiektuaren aurkezpena. Kalegoen plazan.

## 10 DOMEKA

**10:30** Jaiotzen lehiaketa, San Bartolome parrokiako arkupeetan. Sari banaketa meza ostean egingo dute.

## 11 ASTELEHENA

**18:30** Erakusketa: Aita Agirre Berreraikitze proiektua. Hilaren 22ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

## 13 EGUAZTENA

**19:00** Hitzaldia: *Min emozionalean barrera: culpa eta frustrazioa*. Nuala elkar-teak antolatuta, Udalarekin elkarlanean. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**19:30** 2018ko egutegiaren aurkezpena eta sari banaketa. Kultur Etxeko sotoan.

## 15 BARIXAKUA

**19:00** *Volar* dokumentalaren emanaldia, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Ondoren, solasaldia, Mujeres al cuadro elkartekoekin.

**22:00** Antzerkia: *Ikasgaia*. Taupada antzerki taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.




50

Zatoz elurretara

Eskatu aurrekontua eta bidalatu DARIOBUSekin.

Beti orduan eta ordurako.  
Konfiantzazko garraioa.

Pol. Ind. Iqartualdea, 27 - 20850 Mendara - Tel. 943 741 677 - [www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) - [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)



FAMILIENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK  
HERRIKO HAUR ETA NERABEEK  
NEGUKO AISIA ESKAINTZAN  
(Ludoteka, Gaztelekua eta Atxutxiamaika)  
PARTE HAR DEZATEN.

NORENTZAT:


- \* Familia ugariarentzat, kuota osoaren %30
- \* Familia ugaria izan gabe, bigarren seme-alabaren izen ematea egiten dutenentzat, kuotaren % 30 (bigarren izen emate honetan).
- \* Gizarte izaerako diru-laguntzaren bat (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza edo Gizarte Larrialdiko Laguntza) jasotzen duten familientzat, kuotaren %70

NON ESKATU:

- \* Kultur Etxeko erakusketa gelan, Kalebarren plaza 3an.

NOIZ ESKATU:

- \* Abenduaren 4tik 28ra.



GAZTELEKUA  
ELGOIBARKO UDALA

elgoibar  
barrioak



## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 -----

<b>G</b>	<b>09:00 - 22:00</b>
	1 Barixakua ORUESAGASTI
<b>U</b>	2 Zapatua BARRENETXEA
	3 Domeka BARRENETXEA
<b>A</b>	4 Astelehena IBAÑEZ
	5 Martitzena GARITAONANDIA
<b>R</b>	6 Eguaztena ORUESAGASTI
	7 Eguena FERNANDEZ
<b>D</b>	8 Barixakua BARRENETXEA
	9 Zapatua ORUESAGASTI
<b>I</b>	Goizez, YUDEGO
	10 Domeka ORUESAGASTI
<b>A</b>	11 Astelehena BARRENETXEA
	12 Martitzena IBAÑEZ
<b>K</b>	13 Eguaztena GARITAONANDIA
	14 Eguena ETXEBERRIA
	15 Barixakua IBAÑEZ

**GUARDIAK 20:00 - 22:00**  
Guardia Elgoibartik kanpora de-  
nean, asteburuetan izan ezik:  
BARRENETXEA (Elgoibar)  
Errosario, 26 - 943 741 277

**22:00 - 09:00**  
MANDIOLA (Eibar)  
San Agustín, 3 - 943 820 533

\* Fernandez: Herriko enparantza  
4, Garagartza (Mendaro)  
Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Zinea (Herriko Antzokian)



## 'El secreto de Marrowbone'

2 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)  
3 domeka, 19:00  
4 astelehena, 21:30  
6 eguaztena, 19:00

## 'Lego ninjago' (Euskaraz)

3, domeka, 16:30

## 'La librería'

8 barixakua, 21:30  
9 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)  
10 domeka, 19:00  
11 astelehena, 21:30

## 'Amarillito'

10, domeka, 16:30

**Mari Luz Uriarte Arizmendiarrjeta**

2017ko azaroaren 27an hil zen, 84 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Maitasuna ta bakea  
kantari bihotzean  
eztitasun samurra izatean  
askatasun egarriz, bizitzean  
adio, ez agur,**

**egun haundira artean.  
Argi bat itzali zaigu  
gaur hemen lurrean,  
beste bat piztu  
han ortzean.**





Eire Vila

## Jone Olaizola



**D**otoreak ikusten zituen besteen eskuak, garbiak, leunak, denak antzekoak gainera, perfektuak. Bereak, ordea, ez zituen horrelakoak ikusten, eta horrek min egiten zion. Saiatu zen, xaboi garestiz garbitzen, eratzun distiratsuz hornitzen; hala ere, inoiz ez ziren mailakoak. Eskuin eskua zaintzen zuen bereziki; ezker eskuak ez ei zuen askotarako balio, hazka egiteko, gehienez. Ezkerrarekin idazten hasi zentzen, irmo gogorarazi zioten, hori ez zela bide zuzena, ezkerre ezetz, eskuineko eskuaz idazteko. Eta berak ezkerre ahaztu egin nahi izan zuen, gorrotatu egin zuen, baina barru-barruan ezin zuen abandonatu. Hala itotzen zuen eskutik bere eskua askatu eta beste batzuk ukitu zituen; Bidean, eskua erre zuen batzuetan, inoiz edo behin ez zen eskua sartzeraz ausartu hanka ez sartzeaz

rrer, batzuetan eskua luzatu zuen nori begiratu gabe, eta batzuek besoa hartu zioten; eskerrak beste besoa geratzen zitzaion. Hozka egin zioten bestetan, eta zapaldu egin zioten inoiz. Esku batzuk laztandu egin zituen, eta laztan batzuk jaso zituen bueltan, baina gehiago nahi zituen. Ezkerrez tinko heldu zien langile esku trebee, euskaldun umil eta umiliatuenei, desagerrarazi nahi zituzten esku gorriei, eta beltzei, desberdinak izateagatik gorrotatuak ziren eskuei, emakumeen eskuei, berdinekin burdinez lotuta zeudenei. Bere eskuak ikusten zituen horietan guztietan. Bereak bezalako eskuak topatu zituen, inozentzia galdu zutenak, baina topa egiteko prest zeudenak, ez ziren eta poztu egin zen. Orduan, baztertuta eduki zuen ezker eskua igurtzi zuen laztanez, bularreraino heldu zen, bihotza ezkerrean zuen, ondo zekien bezala. Bihotzari kasu egitea erabaki zuen, eta une hartan ez zen ezer aldatu baina dena aldatu zen.

*“Esku batzuk laztandu egin zituen, eta laztan batzuk jaso zituen bueltan, baina gehiago nahi zituen”*

# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOERROTA  
ITURGINTZA**  
Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
943 75 60 44 / 628 529 692  
Faxa: 943 75 60 37  
pagoerrotia@pagoerrotaiturgintza.com  
www.pagoerrotaiturgintza.com

**ONGI** Iturgintza  
Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

**FONTANERÍA  
Ibámar**  
ITURGINTZA  
San Roke 10-A, behea B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskafnet.net

**TELLABIDE  
ITURGINTZA**  
Azpilgoeta 7 behea - Mendaro  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzafellabide@hotmail.com

**PAGOAGA S.A.**  
BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
senda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com  
BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com  
ELGOIBAR

## ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus



Olaso industriagunea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriaimar@hotmail.com



Kurutz-gain Industriagunea, 9  
20650 Mendaro  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**  
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547

## ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro  
943 530 356

iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999



Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Urruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

## LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurrarekin ere  
lan egiten dugu.



Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651

## PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida

Gremioen gida

# AURKEZPEN PUBLIKOA

Abenduaren 3an, igandea,  
Kalegoen plazan,  
13:00etan



**EUSKARALDIA.**

euskararen alde egotetik  
euskararen alde egitera,  
egiten duguna garelako.